

KIROLDEGIA

Hegoafrikak aukera
handiak ditu
Albertvillen izateko

NEW YORK

Hegoafrikako atleta kopuru mugatu batek datorren otsailan Albertville'92 Joko Olinpikoetan parte hartu ahal izango duela adierazi zuen Juan Antonio Samaranch COIko lehendakariak, New York Times egunkariari eskainitako elkarrizketan. «Atleta hegoafrikarrak onartuko dira, beti ere De Klerkek apartheid politikaren kontra egiten jarraitzen badu».

Arraza arteko selekzioen osaketa burutzeke egon arren oraindik, zuriak eta beltzak onartzen dituen Federazioa duten espezialitateetan Hegoafrikako ordezkariak onartuko dira Albertvillen. «COIk ez du Federazio guztiak aldatu zain egon beharrik —mintzatu zen Samaranch—. Bizpahiru aurreratu egiten badira, zergatik ez zabaldu Joko Olinpikoen ateak? Ziur naiz gainera, horrela beste askok normal-kuntza prozesua bizkortu egingo dutela».

Albertvilleko atak zabalduz gero, Barcelona'92an ere berdin gerta daitekeela adierazi zuen COIren lehendakariak. Hala ere, 'argi berdea' lortzeko, COIren ordezkari-tzak Hegoafrikan egingo duen bost eguneko egonaldia ondotik prestatuko duten txostenak zeresan handia izango du. «Oso ordezkari-tza garrantzitsua da. Ez da datu biltetara mugatuko, eta asmoa ez da inkestak egitea. Kirol eta politika arduradunekin negoziatu eta akordioak sinatzeko ezkuduntza du. Apartheida gainditu eta kirol normalkuntza lortzeko bidean, urratsez urrats, ahal besteko laguntza eskaintzera goaz».

XAKEA

Azmaiparasvili nagusitu zen Paz de Zigandak antolatu txapelketan

Georgiarrek gonbidapena egin zien ikastolei bertara joateko


Zurab Azmaiparasvili georgiarra izan zen Iruñeko Paz de Ziganda Ikastolak antolatutako Xake Txapelketaren irabazlea. Georgiako taldeak 18-7 puntuz gailendu zuen Euskal Herriko selekzioa, baina, antolatzaileek lehendabiziko egunetik esan zuten bezala, garrantzitsuena ez zen txapelketa, «xakearen inguruan gazteen zaletasuna piztea baino».

A. BARANDIARAN / IRUÑEA

Horretarako, eta Maisuren Txapelketarekin batera, ikastolen arteko beste torneoak zegoen antolatuta, lurralde guztietako partaideekin, Arabako ordezkariak azkenean huts egin bazuten ere. Hemen Paz de Ziganda Ikastolako taldea nagusitu zen, hamalau puntuz, Lizarrako eta Bilboko Kirikiño ikastolen aurretik, 10 eta 8,5 puntuz, hurrenez hurren. Ondoren Azpeitiako Etxegarai, 5,5 punturekin, eta klasifikapena ixteko, Kanboko Xalbador Ikastola, 2 puntu lortu zituen. Halaber, Nafarroako xakelariei zuzendutako beste torneo irekia zegoen ikusgai Iruña Park Hoteleko saloi dotoreetan, partida azkarretan, eta bi egunero, bertan Zelaia nagusitu zelarik, Antunez eta Redinen aurretik.

XAKEA
BULTZATZEN
IKASTOLEN

Atzoko berria Georgiako jokalariek gazte euskaldunei egindako eskeintza izan zen, bertara xakean ikastera joateko. Izan ere, eta atzoko EGUNKARIAN Azmaiparasvili azaltzen zuenez, hori zen georgiarren nahia, hemengo jokalariekin lan egitea, maila igotzeko aukera handiak ikusten bait zituzten. Hor dago aukera, eta atzo Paz de



Georgiarrak erraz nagusitu dira Iruñeko txapelketan.

JOXE

Ziganda Ikastolako ordezkari batek azaldu zuenez, «haintzat hartuko dugu», ideiak oso harrera ona izan bait du ikastoletan.

Hain zuzen ere aspaldidanik dabilta Ikastolen Federakundean xakea bultzatzu nahian, jadanik ikasketen planen barruan dutela sartuta. Halaber, eta hurrengo urteari begira, badute txapelketa hau mantentzeko helburua, «Europako torneoen artean sartu ahal izateko».

FERNANDEZ
LEHENDABIZIKO
EUSKALDUNA

Torenoari dago-kionez, esan behar da errez-tasun handiz nagusitu zirela Geor-

giarrak, espero zen bezala, eta Azmaiparasvili, kasu, partida guztietan irabazi zuen, Ubilabak bi taulak egiten zituen bitartean, Fernandez eta Gallegorekin. Euskaldunen artean, Fernandez izan zen hoberena, partidua bakar bat galdu bait zuen, Azmaiparasviliaren kontra, azkenean 2,5 puntu ateratu zituela. Torneo irekian Zelaia izan zen garailea, esan bezala, Antunezek partida irabazita zuela taulak egin ondoren. Sariak ehun mila pezeta eta txapela izan ziren Azmaiparasviliarentzat, eta berrogeitamar mila Jose Luis Fernandezentzat, euskal jokalaririk hoberenari emandakoa.

LABURREAN

OTEIZAKO proba
bertan behera
geratu da

Txirrindularitza afizionatuzaleek Euskaldun eta Lehendakari txapelketen egutegiaren baitan aste bukaera honetan Oteizan jokatu behar zuten proba bertan behera geratu da. Antolatzaileek adierazi dutenez, trafiko arazoaren ondorioz proba ezingo da jokatu. Era berean, eta hau ere trafiko arazoaren ondorioz, martxoaren hogeitamaikun jokatu behar zen Lizarrako saria apirilaren hamairuan jokatu da.

TYSON eskaera
ukatu egin du
epaile federalak

Mike Tyson txapeldun ohiaren eskaera ukatu du epaile federal batek. Egun txapelduna den Evander Holyfielden aurka borrokatzen lehena izan behar duela uste du Tysonek. Holyfieldek, ordea, George Foremanen aurka jokatu du bere koroia apirilaren hemeretziaren, New Jerseyko Atlantic Cityn. Mike Tysonen Munduko Boxeo Elkartearen eta Nazioarteko Boxeo Federazioaren aurrean aurkeztu du bere eskaera. Txapeldun ohiak bere nagusitasuna lehenbailehen berreskuratu nahi du.

ITSUEN xake
txapelketan 150
pertahartzaile

Hogeitamar herrialde ezberdinetako 150 itsuk parte hartuko dute Itsuen Xake Olinpiadaren hamargarren edizioan. Txapelketa hau apirilaren hamaikatik hogeitabost bitartean jokatu da Mallorcan. ONCE elkartearen babesean jokatu den txapelketa honekin batera itsuentzan beste ekintza batzuk antolatu dituzte Mallorcan, hala nola, igeriketa txapelketa eta Antzerki Topaketak.

PORTLAND taldeak
lidergoa
berreskuratu du

Portland Trail Blazers taldeak lidergoa berreskuratu du, atzo Clippers taldeari 96-100eko emaitzaz irabazi ostean. Era honetan Lakers taldeak lehen postua galdu zuen, Seattle Supersonics taldearen aurka 114-106ko emaitzaz galdu bait zuten. Bostons Celtics, New York Knicks, Chicago Bulls taldeek ere garaipena lortu zuten. Azken hauek indar handiz jarraitzen dute Ekialdeko konferentziako lidergoan.

PILOTA

Mañex Etxeberri pilotako
arduradun eta kazetaria hil da


I.E. / BAIONA

Pilotako mundua dolutan dago ipar Euskal Herrian: Mañex Etxeberri armendariztarra, luzaz Euskal Herriko Pilotako Ligaren buru izan dena eta kazetariaren munduan pilotako espezialista handia zena hil da. Asteazken gauean, bihotz alditxartze baten ondorioz, bizia galdu du.

Armendaritze herrian, eskolako errieta egon zen luzaz. Duela 10 egun, bere lana utzia zuen 'erretretan sartzeko'. Herriko 'Denek Bat' pilota batasunaren kudeatzaile izan da eta bertatik pilotari gazte asko ateratu.

Oso ezaguna zen alabaina pilota munduan, eta batez ere bere asteroko kronikengatik, Sud Ouesten, Irulegiko Irratian, Gure Irratian eta azkenik EGUNKARIAN. Jakintza handia zuen eta hurbiletik jarraitzen zituzten bereziki gazteen urratsak. Esku huskako jokoaren zale amorratua izan da beti.

Jean Marie Berterretxe, Baigorriko pilota elkartearen buruak pilota munduaren oharpenen bilduma egin zuen atzo Irulegiko Irratian: «Biziki galtze handia da. Pilota beretako, gauza lehena zen. Nahi zituen ohidurak beti jarraiki. Buruzagi handi bat



Mañex Etxeberri. DANIEL/SUD OUEST

izan da gure artean. Pilotako araudi asko zuzendu ditu Ligan. Elgarretaratze handia egin du pilotaren inguruan».

Pilotaren bizia

Mañex Etxeberri EGUNKARIAN aritza, Baionako ordezkari-tzaren-tzat, pilota iparraldean hurbiletik jarraitzeko bide egokiena nabaritu zitzaigun. Ezer ordainketarik eskatu gabe, duda izpirik gabe, Mañexek bere konfiantza osoa eskaini zigun. Bagenekien altabada hainbeste lan eginez astia eskasa izanen zuela. Beti onartu ditu gure galdeak, bere jakintza harrigarria eskainiz bilduma eta pilotaren laguntzeko. Pilotaren biziak eskainiko dion agurra du oroz gainetik prezia-tuko, bainan bere etxekoei eta lagunei EGUNKARIAREN partez gure laguntasuna eskaini nahi diegu. Miles-ker Mañex.